




Sakeoarekin amaitzeko Kutxabanken kontrol publiko eta soziala

GAI NAGUSIA 2-3 · HAUTESKUNDEAK 4 · ELKARRIZKETA 5-8 ARABA 9 · BIZKAIA 10
GIPUZKOA 11 · NAFARROA 12 · HERRIAK 13-14 · NAFARROAKO PARLAMENTUA 15
GASTEIZKO LEGEBILTZARRA 16 · AMAIUR 17 · EUROPAKO LEGEBILTZARRA 18-19

Sakeoarekin amaitzeko

Kutxabanken kontrol publiko eta soziala



Azken asteotan komunikabideen bidez jakin eta entzun dugunak edozein utziko luke harri eta zur; ez soilik Mario Fernandez edota Cabiecesi leporatzen dizkieten delituengatik, **lobby pribatizatzailea** osatzen duten PNV, PSOE eta PPren jarrerengatik baizik. EAJko buruzagia izateaz gain Lehendakaria ere omen den Urkulluk eztabaida desbideratzen saiatu da era traketsean eta EAJ eta PSOEek EAEko parlamentuan ikerketabatzerdea era-

tzearen aurka bozkaturiko dute nahiz eta **Mario** Fernandezek epai-learen aurrean hark egin zuena **ohiko praktika** zela esan.

PPko kide batek EAJko bati eskatu zion PSOEko

kide bat "kolokatzeko", Estatuari eskainiriko "zerbitzuen" ordain gisa. Adarrak nahi adina izan daitezke baina enborra bat eta bakarra da, alderdien eta alderdiko kideen mesedetan erabiltzea diru eta baliabide publikoak. Praktika hau herri honetako elite politiko, mediatiko eta ekonomikoek onartua da Mario Fernandezen esanetan, bere ustez edonork egingo lukeena egin baitzuen.

2013ko abenduan, **PPk** Kutxabanken kontrol publiko eta soziala galaraztea helburu zuen **legea PNVren sostenguz** onartu zuenean, Mario Fernandez EAEko kutxen salbatzaile gisa aurkeztu ziguten komunikabide ia guztiek, EITB buru, noski. Edo, 2014ko maiatzean, Europako hauteskundeetan baitan **Ortuzar** eta **Egibarrek** Kutxabanken **privatizazioa ezeztatu** eta ekainean **BBK** eta **Vital** kutzak **30 alderdiko lagunen** eskutan utzi zituztenean PNV finantzetan aparta zela saldu nahi izan ziguten.

Baina ohartzen hasiak gara, pribatizatzaileen asmoak ez dira hain zintzoak eta pribatizazioaren aurka ari ginenak arra-

EAJko alkate ohiak eta bere gobernu taldeak Pinosoloko iruzurrean erantzukizun zuzena izan dute.

Mario Fernandezen ondorengo den Billalabeitiak %73 igo du bere soldata, urtean 800.000 € irabaziko dituelarik.

zoiak genuela, **kontrol publikoa eta soziala** ezinbestekoa dela. Ekonomiaz hainbeste omen dakitenez euren poltsikoak bapo betetzea besterik ez dute helburu: horregatik nahi dute kontrol publiko eta sozialik gabeko Kutxabank, **arpilatze**arekin jarraitu ahal izateko. Arpilatzearen azken adibide bat: Kutxabankek etxe-kaleratzeak agintzen dituen bitartean, bere presidente berria den Billalabeitiak **%73 igo** du **soldata**, urtean 800.000€ irabaziko dituelarik.

Hori salatzea eta kontrol publikoa bermatzeko alternatibak aurkezten ditugunak, badugu beraz zer esan eta zer egin. Konturatu gara herritarrok informatuta eta antolatuta gaudenean arpilatzea eta diru-kutxa publikoak xahutzea ez dela hain erraza, zigorgabetasunari mugak jar diezazkiokegula.

Eska dezagun beraz Kutxabank eta hiru euskal kutxetan azken urteotan PNV, PSE eta PPK, eskandaluz lepo dabilen CC00rekin batera, herritarron kontura burutu dituzten azpikoak argitzea eta erantzukizunak eskatzea. Eta nola ez, halakorik inoiz gehiago gertatu ez dadin eta herri honen eta herritarron zerbitzura arituko den Kutxabank publikoaren aldeko konpromisoarekin lanean jarraituko dugu. Guk argi baitugu, **mafia kanpora** eta Kutxabank Publikoa eta soziala!

Kutxabank-eko akordio politiko ezkuatuak argitara atera ditzagun. Sinatu ezazu Ikerketa Batzorde bat eratzearen alde.

#MafiaKanpora

SINATU HEMEN!

EGIN DEZAGUN BIDEA



“Gure erabakiak, gure eskubideak” leloarekin abiarazi zen eskubide sozialen karta osatzeko prozesua. Ezberdina batzeko ahalegina egin duen prozesua eta edukietan garapen ideologiko handia erakutsi duena. Prozesu horrek karta interpelazio dinamika bati ekiteko tresna izatea lortu, eta gure eskubideak defendatzeko unean ehunka eragile eta sindikatu ados dardela erakutsi du, minimoetan bada ere; orain gehien-

goa eskubide horien jabe izatea da erronka, eta, batez ere, eskubide horiek jendarteak duen erabakitzeko eskubidean oinarritzen direla ulertaraztea. Horretan ere EH Bilduk ardura handia du.

“Aldaketa orain, alternatibak baditugu” lelopean beste fase bat irekitzen da, sozializazio fasea, alegia. Niri are interesgarriagoa iruditzen zait. Eskubideak beste norbaiti eskatzen guk geuk geure eredia eraikitzeke deia egiten da fase honetan. Nahiko zentzuzkoa da behin dagokigun eskubidearen jabe egiten garenean subjektu aktiboa bilakatzea eta gure etorkizunaren diseinuan parte hartu nahi izatea aldarrikatzea. Benetan bide hori egiteko hautua egiteak mugimendu sozialaren heldutasuna eta burujabetza erakutsiko luke, eta EH Bilduk maila berera egokitu beharko luke bere jardura politikoa: alternatiba eraikitzeke ordua da.

Euskal Herrian baldintza okerrenetan erantzun sortzaileak eta eraikitzaileak ematen asmatu dugu, ilusioarekin, beste etorkizun bat bilatzeko asmoarekin. Eredu sozioekonomikoan ere bide berbera egin behar dugu, alternatibak eraikiz eta herriaren erabakiak errespetatuz. Hori da herri honek izan behar duen muga bakarra arlo sozialean ere, alternatiba sozial eta eraldatzaileak eraikitzeke sormena eta gure erabakitzeko eskubidea, alegia. Martxoaren 14an bide horretan beste pausu bat eman dezagun Bilbon eta Iruñean.

Carlos Renedo, Eskubide sozialen kartaren prozesuko parte-hartzailea